

IRABAZI ITURRIAK:

Gure enpresaren kasuan, zerbitzu eskaintzeagatik kobratuko dugu. Hauek, bide desberdinetatik lortuko ditugu. Alde batetik, saltzailearen eta bezeroaren arteko bitartekari lanak egiteagatik kobratuko genuke. Hau da, saltzailearen prezioari ehuneko bat gehituko diogu eta horrela bezeroak ordaintzen duen kopurutik prezioari gehitutako kopurua kenduko genioke eta hori gure diru sarrera izango litzateke.

Beste zatia hilero ordaindu behar diren alokairuetatik aterako dugu. Bezeroak gure bitartez ordainduko dio hilero alokairua etxeko jabeari. Beraz diru kopuru hortatik guk zati bat hartuko dugu eta bestea etxeko jabearentzat izango da. Horretaz gain, gutxienez 6 hilabete gurekin lan egingo dutela esaten duen kontratu bat sinatu beharko dute. Izan ere, behin lehengo hilabetea eta gero, beraien artean kontaktuan jarri beraiek bakarrik kudeatzeko dena, eta guri ordaindu behar diguten zatia ordaintzea ekidituko ez dutela ziurtatu behar dugu.

Gainera, higiezin agentzia baten prezioak baino baxuagoak izango ziren gure prezioak. Horretaz gain, beste enpresa batzuen publizitatea gure web gunean jartzeagatik ere ordainduko digute.